

MERKATARITZA-INDIZEA AZALER HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2024ko ABENDUA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,3 hazi dira 2024. urtean

Elikagaietan salmentak % 0,6 igo dira, eta gainerako produktuetan % 0,3 egin dute behera


2024. urte osoan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 0,3ko hazkunde metatua izan dute, Eustatek landutako datuen arabera. Elikagaien sektorearen kasuan, salmentak % 0,6 igo dira aurreko urtearen aldean, eta gainerako produktuen sektorean, berriz, % 0,3 jaitsi dira.

Urtean zehar metatutako aldakuntza positiboa izan da hiru lurraldeetan: Araban salmentak % 0,4 gehitu dira 2023. urtearen aldean, eta % 0,3 Gipuzkoan eta Bizkaian.

Sektoreko landunen indizeak % 1,6ko hazkunde metatua izan du 2024an.

2024ko abenduan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,7 jaitsi dira aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta dagozkion egutegi-ondorioak zuzendu ondoren. Aurreko hilabetearekin, 2024ko azaroarekin, alderatuta, prezio konstanteetako salmentak % 1,6 murritzuta dira, dagozkien urtaro-ondorioak atera ondoren.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Elikaduraren sektoreko salmentak % 2,2 jaitsi dira hil artean. *Gainerako produktuen* sektorean, % 0,4ko jaitsiera aurreko hilaren aldean. Urte artean, 2024ko abenduan eta 2023ko abenduan, salmenten bilakaera negatiboa izan da bai *Elikadura* (% 1,1eko jaitsiera), bai *Gainerako produktuetan* (% 0,1eko jaitsiera).

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Abendua 2024 (P)

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,7	-1,6	0,3
Araba/Álava	0,5	0,2	0,4
Bizkaia	-1,2	-2,2	0,3
Gipuzkoa	-0,5	-1,3	0,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	-1,1	-2,2	0,6
Gainerako produktuak	-0,1	-0,4	-0,3
ENPLEGU-INDIZEA			
Euskal AE	2,1	0,2	1,6

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarritetik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2025eko Urtarrilaren 28a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

2024ko abenduan azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,5 gehitu ziren Araban, urte arteko terminoetan. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, salmentak % 1,2 eta % 0,5 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Antzera, hil arteko baliotan, Araban salmentak % 0,2 igo dira, baina Bizkaian eta Gipuzkoan % 2,2 eta % 1,3 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako **langile okupatuak**, azkenik, % 2,1 gehitu dira 2023ko abenduaren aldean. Hil artean, indizeak % 0,2ko igoera izan du.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatu dira, eta hil arteko aldakuntzak urtarokotasunik gabeko serieetan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Hilabete honetako indizea % **100,00 estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62